



# ZIZURKILGO EUSKARA JATORRA IKERGA

Zizurkilgo Udalak Zizurkilen Barrena Bekaren deialdi berria egin du; hilaren 24ra arte dago aurkezteko aukera »4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-10-08**

VIURTEA 1.528.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Galarretan jokaturiko azken partidaren ostean omenaldia egin zioten Imanol Altunari. JOSEBA ZABALZA

## 20 DENBORALDIREN OSTEAN, GALARRETAKO AZKEN TANTOAK

**AMEZKETA** Imanol Altunak profesional mailako azken partida jokatu zuen asteburuan; «partida oso polita eta berezia» izan zela dio s

## 400.000 euro kostako da Epaitegia birgaitzea

**TOLOSA** 3 hilabete iraungo dute lanek; kaltetuak izan diren 80 bizilagun inguruk jarri dute salaketa z

**'Euskal Herrian  
zehar, geurea  
ikurrina!'  
ekimenarekin,  
Urbasara**

**IBARRA** Igande honetan egingo dute bigarren irteera, bizikletaz 7

**Antolatzaileak  
oso gustura,  
larunbateko  
Aurrera  
Egunarekin**

**LEITZA** Belaunaldi ezberdineko bazkideak elkartu ziren, besteak beste 7

## Pilar Eguneko jaia berreskuratuko dute igandean Ikaztegietan.

txokoa **h**

**2 sarrera pare**  
goizean jasotzen ditugun lehen bi deientzako

**AKABA BERA BERA  
ITXAKO**  
GAUR, ASTEAZKENA  
URRIAK  
**08:19:00**  
Donostiako Bidebieta Kirodegian



EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

**10 sarrera pare**

zozketan, deitu eta eskuratu



**Bertso-saioa**

Urriak 12, igandea  
17:30etan  
Tolosako Leidorren

# 400.000 euroko kostua izango dute epaitegia birgaitzeko lanek

**Tolosa** » Hiru hilabete inguru iraungo dute; kaltetutako 80 bizilagun inguruk aurkeztu dute salaketa dagoeneko.

## ERREDAKZIOA

Larunbat goizaldean ETak Tolosako Epaitegian jarri zuen lehergailuak sortutako kalteak konpontzeko 400.000 euro beharko direla adierazi zuen herenegun Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak. Halaber, eraikina birgaitzeko lanek hiru hilabete iraungo dutela azaldu zuen.

Hain zuzen ere, herenegun izan zen Azkarraga Tolosako Epaitegian bonbak eragindako kalteak ikusten. Kaltetuen izan ziren zonaldeak arakatu zituen, hala nola, erabat suntsituta geratu den auzitegi-klinika, deklarazio-gelareta Lehen Instantsiako Epaitegia. Bost kiloko lehergailuak eraikinaren aurrealdean ere kalteak eragin zituen, eta baita, aldameneko etxebizitzetan, anbulategian eta gertu aparkaturik zeuden 20 bat autotan. Kaltetuak izan diren bizilagunei dagokionez, dagoeneko 80 lagun inguruk salaketa aurkeztu dutela esan zuen Joseba Azkarragak.

## Asteleheneko lehen orduetatik lanean berriro

Azkarragak herenegun esan zuenez, «epaitegian gaurko lehen or-



Tolosako Epaitegiak zuen itxura leherketa izan ostean. ESTI EZEIZIA

duetatik hasi dira lanean»; halaber, eraikina birgaitzeko lanek iraungo duten hiru hilabeteetan lanean jarraituko dutela esan du, bertako «herritarrei inolako trabarik ez sortzearen».

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak ez zuen lehergailuari buruzko xehetasunik eman, «Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari baitagokio hori».

## Laburrak

### 'Ser y tener' filma bihar ikusgai, Zine Forumean

**TOLOSA** » Azken orduko aldaketa izango du biharko Zien Forum saioak, eta *Rios y mareas* dokumentala eman ordez, *Ser y tener* dokumentala izango da ikusgai, ohiko moduan 19:30ean eta 21:45ean, Leidorren. Frantziar jatorrikoa da, 2002koa eta 104 minutuko iraupena du. Frantzia osoan oraindik ere *escuelas unitarias* bezala ezagutzen direnak daude. Hauetan, herri bateko edota zonalde bateko haurrak biltzen dituzte haur eskolatik Lehen Hezkuntza amaitu arte, irakasle batekin. Isolamenduaren eta mundu berri baten aurrean, talde txiki hauek elkarren artean bizitzen dute guztia era gordinetan, onerako eta txarrerako.

### Santurtziko eraiketa salatzeako elkarretaraztea

**TOLOSA** » Herenegun Santurtz in eraiketa sexista bat eman zen, bere senarrak 26 urteko emakumea hil zuen. Eraiketa salatzeako Tolosaldeko Bilgune Feministak gaur 20:00etan elkarretaraztera deitu ditu herritarrik Triangulo plazan.

### Aparteko osoko bilkura, etzi 20:00etan udaletxean

**TOLOSA** » Aparteko osoko bilkura egingo dute etzi, 08:00etan, Tolosako udaletxean. Eusko toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udaltz 2008-2010 akordioetara atxikitzea onartzea eta horietara atxikitzeak Yurreamendi Egoitzako Zuzendaritza Batzordearen akordioa berrestea dira gaiak.

### Ostegunetan euskal dantzak ikasteko aukera

**TOLOSA** » Euskal dantza ikastaroa eskainiko dute Amaratzen ostegunetan. Hain zuzen ere, joan den ostegunetan hasi zen ikastaroa, bertako dantza taldeak antolatuta. Lehenbiziko saioan aurreneko hilabeteotako plangintza egin zuten eta aurten ikasiko duten dantza hautatu zuten. Dantza hau, ohi duten bezala, Amaroako festetan aurkeztuko dute jendaurrean. Horretaz gain, noski, fandangoa eta arin-arina ere ikasiko dute. Esan bezala, Amaratz auzoko lokaletan (Amarozko mediku dispensarioaren ondoan), ostegunetan, 20:30ean elkartuko dira Udaberri dantza taldeko kide baten aginduetara. Animatezen denak oraindik ere aukera badu parte hartzeko.

### AEKn izena emateko aukera dago oraindik

**EUSKARA** » Tolosaldeko AEKk astelehen honetan ekin zion ikasturte berriari. Hainbat talde sortu dira eskualdeko herrietan baina oraindik ere talde horietan ikasle gehiagorentzako tokia dagoela jakinarazi dute. Iruran, astean 3 egunetan 15:00etatik 17:00etara, eta erdiko mailan badago lekua. Amasa-Villabonan, astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara, erdiko mailan, eta Zizurkilan, astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara, hasiera-erdiko mailan eta astelehenetik ostegunera 15:00etatik 16:30era, hasiera mailan. Izena emateko Irura, Villabona eta Zizurkilgo udaletan, Andoaingo AEK euskaltegian, 943 591704 zenbakian edo andoain@ae.org helbidean egin ahalgo da.

# Bide Bide Ibizak garaipena lortu du denboraldiko lehen norgehiagokan

**Tolosa** » Luzapenean irabazi zuen Tolosako saskibaloitza taldeak Getxo ST taldearen aurka, etxean jokaturako partidari.

## ERREDAKZIOA

Babesle berriak zortea eman zien Tolosako saskibaloitza taldeko nagusie eta garaipena erdietsi zuten, luzapenean bada ere, Getxo ST taldearen aurka. 88-80 izan zen, hain justu, azken emaitza Bide Bide Ibizak tolosarren alde. Garaipen honek «lasaitasuna» ematen die datozen bi partidak etxetik kanpo jokatu beharko baitituzte.

Aurrendenboraldi «gogor» baten ostean iritsi zen debuterako garaia. Aurrean ez zuten aurkari samurra,

Getxo igo berria hain zuzen ere. Aulki bixitarien «ospe handiko» entrenatzailea zegoen, Carlos Sergio, eta hori gutxi balitz «jokalari historiko eta kalitatez beteak» ekarri zituen Usabal kiroldegira.

## Tolosarrekin hasiera hobea

Agian oraindik mailari neurria hartu gabe daudela nabaritu zitzaizkien lehen minutuetan getxotarrak eta etxekoak 9-leko partzialarekin aurreratu ziren. Mikel Txiki 7 puntu ia jarraian sartuta taldea markagailuan aurreratu zuten. «Une batez Londresen lana egin beharrean saskibaloitza kanpus batean egon dela zirudien, duela urte gutxi batzuk famatu egin zuten barnealdiak berreskuratuz», diote taldeko ordezkariak.

Bigarren laurdenean, aldiz, kan-

**Bide Bide Ibizak** **88**  
**Getxo ST** **80**

### ■ Bide Bide Ibizak.

13+17+18+23+17. Hasierako bostekoa: Kike (21); Goar (20); Mikel Txiki (8); Ion (6); Joseba (6). Aldaketak: Iñigo (0); Martia (0); Haritz (4); Fernando (11); Mikel (0); Kaiet (10); eta Julen (0).

■ **Getxo ST.** 10+17+22+22+9. Hasierako bostekoa: Olibarri (9); Cernigaonaandia (2); Goñi (13); Garcia (7); Cavana (5). Aldaketak: Peña (28); Llanes (10); Rebollo (2); Iribarren (0); eta Rey (0).

potarrak pixkanaka intentsitateaz igoaz eta erasoko errebotean min handia eraginez partiduan bete bete sartu ziren. Mailara egokitzea

minutu batzuetako kontua beste-rik izango ez zela erakutsi zuten.

Atsedenaldia eta gero, beterranoek hartu zituzten ardurak. Goar-ek hiruko marratik erakutsitaldi bikaina egin zuen. Hala ere, horiez zen nahikoa izan eta bizkaitarrak pixkanaka gerturatzen joan ziren, markagailuan aurretik jarri arte eta joko erritmoa menderatu arte.

### Amaiera parekatua

Azken minutuak urduritasunez beteak izan ziren. Fernandok hiruko erabakigarria gauzatu ondoren, tolosarrekin defentsako «lan bikaina» egin ondoren baloia berreskuratatu eta jaurtiketa argia egin zuten, baina ez zuten asmatu. Getxotarrak ez zuten aukera alde batera utzi eta hiruko batekin partida berdindu zuten. Jimyk zuzendutako mutilek azken jaurtiketa egiteko aukera izan zuten baina falta egin zioten Kaiet-i. Kiroldegia mutu gelditu zen 0,8 segundoren faltan. Bijaurtiketa egin behar izan zituen

partida irabazteko. Tamalez biak hiruk egin eta luzapenera joan behar izan zuten.

Luzapena beste kontu bat izan zen. Kanpotarren indarrak hustu egin ziren eta etxekoek partida poltsikoratu zuten 17-9ko partzialarekin luzapeneko bost minutuetan. Partidu zaila izan arren, taldeak garaipena etxean uztea lortu zuten. Taldeko giroa «bikaina» da eta hori nabari da momentu zailetan bat egin ez emaitzak lortzeko.

Bestalde, atsenaldian ohiko zozketa egin zuten Usabal kiroldegian, eta zenbaki saritua 240. aizan zen.

### Hurrengo biak etxetik kanpo

Hurrengo astean Urretxuko Goierri taldeari egin beharko diote bixitza tolosarrekin. Azken urteotan ikusi ahal izan den moduan, derbi borrokatua izango da, 19:00etatik aurrera hasiko den. Eta hurrengo partida ere etxetik kanpo jokaturiko du Bide Bide Ibizak talde tolosarrak.

## Berdinketa lortu du Ibarra areto futbol taldeak Santurtzi taldearen aurka

**Ibarra** » Etxekoak gehiago izan ziren lehen zatian, eta santurtziarrak, berriz, bigarreanean.

### ERREDAKZIOA

Berdinketarekin amaitu zuen larunbateko partida Ibarra areto futbol taldeak Santurtziaren aurka, 3-3, hain zuzen. Ibartarrek emaitza ontzat jo dute, «oso parekatua izan baitzen, eta Santurtzik gogor borrokatu baitzuen, espero genuena baino talde indartsuagoa dela erakutsi zutelarik».

Gogor hasi zen Ibarra erasoan; Aitzol Oyarbidek zutoinera bota zuen baloia, eta hori bezala, beste hainbat aukera izan zituzten ibartarrek lehen minutuetan. Santurtziko Jose Andres Gutierrezek, berriz, jokaldi batean eskuadratik sartu zuen baloia Igor Zabalore atean. 0-1eko zen. Ibarrik izan zituen aukera gehienak, baina bizkaitarrek egin zuten gola. Baina, segituan egin zuten berdinketaren gola; Unai Labakak sartu zuen.

Ibartarren esku jarraitzen zuen partidak, eta hauek ziren aukera gehienak sortzen zituztenak. Hala, 13. minutuan Unai Labakak David Pradosi uzten dio baloia, eta honek, atezainaren aurrean bakarrik zela gola sartu zuen. Emaitza horrekin, hau da, 2-lekoarekin iritsi ziren atsedendaldira.

### Aurkariak erasora

Bigarren zatian Santurtziaren jarrrera bestelakoa izan zen, eta erasoari ekin zioten. Hala, 32. minutuan berdinketaren gola egin zuen Iban Llanosek, jokaldi polit baten ostean. Eta hiru minutu barru, berriro ere Santurtziok izan ziren gola egin zutenak, eta aurretik jarri ziren. 35. minutua zen, eta 3-2 erakusten zuen markagailuak. Hector Larrazabal izan zen gola sartu zuena, kórner baten ondotik. Minutu bat beranduago Victor Silvak sartu zuen baloia sare barruan, berdinketa, beraz.

Partidaren azken minutuetan bi taldeek izan zituzten aukera garbiak, baina ez zituen baliatzen jakin, eta azkenean, 3-3koarekin amaitu zen.

### Jubenilek garaipena

Jubenilen taldeak Usabalen jokatu zuen partida, Laskorain taldearen aurka, eta 4-3 irabazi zuten, parekatuak partida batean.

Denera, 6 talde daude Tolosaldekoak maila honetan: Ibarra, Lauburu, Laskorain, Orixe, Eskolapioak, Anoetako Gazte Asanblada eta Villabonako Gopar. Ligako titulua edo Gipuzkoako Kopa lortzeko borrokan egongo dira 2 taldeetan banatuta.

## Tolosak 2-0 garaitu du Berio eta bigarren postuan dago

**Tolosa** » Saikapeneko lehen bost taldeak 9 punturekin daude berdinduta; hurrengoa Pasaiaen aurka izango du.

### ERREDAKZIOA

Partida kaxkarra izan zen ikusgai pasa den larunbatean Berazubiko zelaian, Tolosa eta Berioren arte-

an. Denaden, etxekoentzat izan ziren hiru puntuak, 2-0 irabazi baitzuten.

Asier, Lakalle, Lanzate, Ekhi, Telleria, Romero, Urtzi, Haritz, Anton, Ander eta Aner izan zen tolosarren lehen hamaikakoa. Aldaketei dagokionez, Eñau Lakalle-oren ordez irten zen, Iñatitxo Haritz-oren ordez, Blanco Antonen ordez eta Xabi Anerren ordez.

Berio taldean, bestalde, Calafell,

Olaizola, Badiola, Aimar, Martinez, Ferrera, Alduntzin, Goia, Garmendia, Agirre eta Vega izan zen talde titularra; baina, Lopetegik ere jokatu zuen, Badiolaren ordez irten baitzen, Larrea Aimarren ordez, Iraitz Alduntzinen ordez eta Oria Agirreraren ordez.

Tolosa jauna eta jabe izan zen ia partida eta osoan, eta aurkariak ahal zuten moduan defendatu zuten euren atea, baina ezin izan zio-

ten eutsi, izan ere, 15. minutuan iritsi zen tolosarren lehendabiziko gola. Haritzen eskutik. Bigarren gola, berriz, penaltiz iritsi zen, 47. minutuan, eta Anderrek sartu zuen.

Aukera ugari izan zituzten tolosarrek golak egiteko, eta horietatik bi baliatu zituzten. Berio, berriz, azken unean iritsi zen tolosarren atera, baina ez zuten golik egiten jakin. Azken emaitza, beraz, 2-0 izan zen. Ondorioz, Tolosa saikapeneko bigarren postuan dago, 9 punturekin. Hain zuzen ere, lehen 5 postuetan dauden taldeak berdinduta daude. Hurrengoa, Pasaiaen aurkakoa izango dute.

EUSKADIKO EKONOMIA  
INDARBERRITZEKO AKORDIOA

## GIPUZKOAKO ERREPIDE SAREA

### Oso gertu sentituko duzu

**1.500 milioi eurotik gorako inbertsio publikoa 4 urtetan.**  
Gipuzkoako Errepide Sare berria ekonomia eta enplegua indarberritzen lagunduko diguten proiektuetako bat da. Baina askoz gehiago ere badaude: topoaren metrizationa, Balenciaga Museoa, Pasaiaiko Portua berriztatzea... Gipuzkoako hainbat proiektu bizkortzen ari gara ekonomia eta enplegua indarberritzeko.  
Eta zuk, oso gertu sentituko duzu.

**G** **Gutunak****Garraio eta Herri Lan sailburuaren aholkulariari**

Abiadura Handiko Trenaren inguruan egin beharreko zundaketak direla eta, Anoetako udaletxean lurjabeekin eginiko bileran gertatutakoarekin gure desadostasuna azaldu nahi genizuke arrazoi desberdin hauek kontuan izanik:

1- Bilera osoa gazteleraz egin zen, Anoeta UEMAnsarturik dago

batetik, eta bestetik, 80 urte beteta dituzten lurjabe gazteleraz eginarazi izana ez dugu uste egokiena denik, euskaraz aritzeko eskubide guztia dutenean.

2-Anoetako Udalak lurjabeen joan-etorriak ekiditeko bulegoa uzteko erabakia hartu zuen bilera horiek egin zitezten, guk uste genuen proiektuaz arduratzen diren tekniko eta herritarren arteko bilera izango zela. Baina ezusteko ederra eman ziguten udaletxe ba-

rruan eta herrian zehar jendeari identifikazioa eskatuz ibili ziren ertzain eta guardia zibilek.

3- Egia da behin baino gehiagotan proiektu horren aurka agertu garelako (hori ere iritzia emateko eskubideen barnean dagoela uste dugu), baina guk ez dugu hemen inor modu txarrean edo desegokian tratatu eta, beraz, ez dugu ulertzen udaletxe barruan horrelako "indar" erakustaldiak egiten aritu izana.

4- Lurjabeek, ia guztiak, kexa berbera izan zuten, informazio gehiagorik gabe ezin genezake baiezkorik eman ez baitakigu ondoren zer datorren eta... Beraz, informazio argia eta zabalaren eskar nabari geratu zen.

5-Garraio eta Herri Lan Sailburuak adierazi izan du behin baino gehiagotan aurka agertu diren udaletxeetan ere informazioa eskaintzeko prest dela, eskertuko genizuke adieraziko bazenien zain

gauzkala eta gustu handiz jasoko genukeela informazio Udaleko ki-deok zein lurjabeek, ziur baikaude gardentasunez jokatzeak denoi egingo digula mesede.

Azkenik, adierazi nahi genizuke guk prest jarraitzen dugula behar diren leku eta baliabideak berriz ere zuen esku uzteko, baldin eta modu egokiago batean gauzak egingen badira.

**Periko Peñagarikano.** Anoetako alkatea.

# Herriko euskara da Zizurkilen Barrena Bekaren deialdi berriaren ikergaia

**Zizurkil** » Hilaren 24ean amaitzen da epea proiektuak aurkezteko; lana burutzeagatik 3.000 euro emango ditu Udalak.



Zizurkil Goiko kaskoa ikergune interesgarria izango da bekarentzako. J. AZKUE

**ERREDAKZIOA**

Zizurkilgo Udalak Zizurkil Barrena Bekaren deialdi berria egin du. Oraingo honetan ikergaia Zizurkilgo euskara izango da. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) garapenaren barruan, «ezinbestekoa» ikusi du Udalak herriko «lehenengo hizkuntza-ondarea eta ondare horri dagokion etnografia arloa batera jaso eta datoen belaunaldientzako ispilu eta erreferentzia izango den azterlan bat herritarren eta euskaldun guztien esku jartzea».

Bekaren oinarrietan zehazten denez, ikerlana, euskaraz egin behar da eta beste inon saritu edo argitaratu gabekoa izan behar du. Dena dela, lehiaketa honetara proiektuaren txostena eta lan-eskema aurkeztuko dira eta epaimahaia haiek begiratuta erabakiko du zein proiektu saritu eta garatu. Hilaren 24a, 12:00ak baino lehen, aurkeztu behar dira proiektuak Aurreraplazako bulegoetan.

Esan bezala, ikergaia, Zizurkilgo euskara izango da, hau da, «bizirik dauden zizurkildarrik petoenek arruntki darabilten hizkera», oinarrietan zehazten denez. Hori jasotzeko, Udalak berak eta epaimahaia gomendatutako hainbat zizurkildar elkarrizketatuko da. Lana behar den bermatasunez egiteko beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa kopurua epaimahaia finkatuko du.

**Atalak**

Oinarrien arabera, ikerlanak ondorengo atal hauek behintzat landu beharko ditu: Sarrera (helburuak, metodologia, egitura eta gisakoak); Zizurkilgo euskararen

euskalkiaren eta azpieuskalkiaren sailkapenak eta zehaztasunak; jasotako hizkeraren (hizkeren) sailkapen eta azterketa zehatza euskalkia eta azpieuskalkia kontuan hartuta, hau da, fonetika, morfologia, sintaxia, lexikoa eta hizkuntza-tratamendua; soziolinguistika; elkarrizketa bidez bildutako laginen tratamendua; ikerleak edo ikerleek ateratako ikerlanaren ondorioak, ikuspegi soziolinguistikoa eta etnolinguistikoa erabilia; eta transkripzioen idazketak, horretarako ohikoak diren arauak kontuan hartuta egingo dira.

Ikerlana egiteko beka 3.000 eurokoa izango da. Proiektu bakarra sarituko da. Epaimahaia aurkeztutako proiektuetan lana burutze behar adina kalitate edo berme ikusiko ez balu, beka eman gabe utz dezake.

Bekaren diru kopurua hiru zatitan ordainduko da: kopuru osoaren %40a proiektu onartzean, %30a sei hilabetera, egindako lanaren txostena aurkeztu eta epaimahaia ontzat emandakoan, eta azken %30a lan amaitua entregatzean. Epea bukatu eta aurrez adostu gabeko arrazoirik tarteko izan gabe, ikerlana bukatuta entregatzen ez bada, beka-hartzaileak/hartzaileek, jasotako dirua itzuli egin beharko du/dute.

## Lizaso Esnaolarekin ariko da larunbatean Gipuzkoako Txapelketan

**ERREDAKZIOA**

Villabonako Behar-Zanako elkarteko Iñaki Lizasok eta Antton Pebetek Aginagako finala galdu bazuten ere, Gipuzkoako txapelketari bikain heldu diote eta lehen bi partidak ongi irabazi dituzte. Lizaso billabonatarak hirugarren partida Jon Ander Esnaola beasaindarrarekin jokatu zuen aňorgatarren aurka eta datozen bi asteburuak ere berarekin jokatu ditu. Horrela bada, larunbat honetan Amasako pilotalekuan eta 12:30ean Lizaso-Esnaola bikoteak Zumarragako Rodrighez-Insautsi bikotea izango dute aurkari. Partida gogorra eta orekatua espero da.

Bere aldetik, Behar-Zanako pilotaria den Angeluko Antton Pebet atzelaria Argentinan da 22 urte azpiko Munduko Txapelketa jokatzen ezker paretan.

Gipuzkoako Txapelketa jokatzen diharduten beste pilotariak etxetik kanpo dituzte partidak. Aranburuk senior mailan buruzburu Aňorgan jokatu du; senior binakako Arretxe-Iraetak Urnietan; jubenil mailako Karrerak, Ordozgoitik eta Inzak atsedena izango dute; kadete mailako Artaza-Nazabal bikoteak Usturibilen dute zita; Otaño-Oteagik Zaldibian jokatuko dute eta Otaegi eta Ezeizak Oartzunen jokatuko dute.

**Laburrak****Kilometroetako zozketan zerbaki saridunak**

**IRURA** » Kilometroak 2008ren ekitaldi erraldoia pasatu da, baina oraindik gauza onak ere ekarriko ditu, bi lagunentzat behaintzat. Izan ere, bi zozketen emaitzak ondorengoak dira: autoaren zozketaren zerbaki sariduna 45467 da eta Mediterraneoan bidaiarera 00939.

**Kaxkagor elkartearen urriko ekintzak**

**AIZTONDO** » Kaxkagor elkarteak Aiztondo bailarako gazteentzat urriaren zehar hainbat ekintza antolatu ditu. Urriaren 18an, larunbatean, Adarra mendira txangoa egingo dute. Goizean joan eta eguerdirako buelta egingo dute. Urriaren 25ean, larunbatean, zubi-jauzia egiteko aukera izango dute Azkoitian (Gipuzkoa). Izen-ematea hilaren 15a baino lehen egin behar da, 677 48 89 10 zenbakira deituaz edo [kaxkagor@hotmail.com](mailto:kaxkagor@hotmail.com) helbidean. Prezioa pertsonako 20 eurokoa da.

**Jubilatuentzat Vianara irteera hilaren 21erako**

**AIZTONDO** » Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak jubilatuentzako irteera antolatu du Vianara hilaren 21ean. Goizean, Ondarre (Olarra) bodega ikustera joango dira. Bisita eta hamaiketako egin ondoren, Logroñotik buelta bat ematera joango dira. Bazkaria Vianan izango da. Arratsaldean herri honen bisita gidatua egingo dute. Izen emateko epea hilaren 14ean bukatzen da. Horretarako Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora joan edo 943 69 39 30 telefono zenbakira dei daiteke.

**Beharpen handiak Kilometroen materialean**

**IRURA** » Kilometroen biltegian «izurgarriko» beharpenak izango direla datozen egunetan materialean jakinarazi dute antolatzaileek. Hala, erostera joateko ordutegia ondorengoak izango da: gaurtik hasita egunero, 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ermita Ikaztegiatik Baliarrainerako bidean dago, errepide nagusiari pegatuta N.U.

## Igandean Pilar Eguneko jaiak berreskuratuko dute

**Ikaztegieta** » Meza, hamaiketako, Mus Txapelketa eta trikitixa izango dira, duela urte batzuk egiten zuten bezala.

### ERREDAKZIOA

Duela urte batzuk, urriak 12 Pilar Eguna, Ikaztegiatan ospatu egiten zen baina azken urteotan erabat galdu da egun hori ospatzeko ohitura. Aurtengoan, simple eta xume bada ere, egun hori berreskuratu nahi izan dute. Beraz, igandean ospatuko dute.

Egun honetarako antolatuko dute-na hauxe da: meza, hamaiketako,

trikitilariak eta Mus Txapelketa. 11:15ean ermitan Meza izango da eta ondoren, tabernarik ez badago ere, kultura batzordeak, errepidearen beste aldean barra jarriko du eta hamaiketako ederra (salda, mondejua, haragi egosia, ardoa) izango dute «prezio egokian». Hamaiketakoarekin batera trikitilariak izango dira.

**Arratsaldean Mus Txapelketa** 17:00etarako berriz, Herriko Ostataren laguntzarekin batera Mus Txapelketa antolatuko dute. Izen ematea 16:30etik 17:00ak bitarte Ostataren bertan izango da eta bikote bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du. Lehen bi bikote sailka-

tuentzat sariak egongo dira. Mesean jendea biltzea espero dute: «Anima zaitzete parte hartzera!».

**Gipuzkoan, Pilar izenarekin bat** Ikaztegiatan Pilar Eguna ospatzen zutenean Zubiaurre inguruan egiten zuten festa. Pilareko Andre Mariaren ermita Ikaztegieta eta Baliarrain arteko bidean dago, errepidearen ondo-ondoan. Gipuzkoan deitura hau duen bakarra da. Ibaiaren beste aldean kokatuta zegoen eta Santiagoren deitura zuen ermita ordezkatzen du.

Diotenez, Ikaztegieta apaiz batek eraiki zuen ermita, Zaragozako tenpluan egindako irainak ordaintzeko-edo.



Animalien artean ardi-aziendak dira eraman ezingo direnak. I. TERRADILLOS

## Ardi-aziendak ezingo dira Alegiako urriko azokara eraman

### ERREDAKZIOA

Alegian hilaren 19an II. Barazki eta Animalia Azoka egiteko asmoa dute eta dagoeneko hainbatek eman dute izena bertan parte hartzeko. Baina Kultur Batzordeak jakitera eman duenez, mihi-urdiraren gaitza dela-eta ardi-azienda (ardiak, ahuntzak, antxumeak) eta behiak Alegiako plazara eramaterik ez da izango.

Gainerako animaliak, berriz, zaldiak muxalak, pottokak, behorak, hegaztiak... esaterako, arazorik gabe eraman daitezke.

«Badakigu badela jendea antxumeak-eta ematekotan zena», eta horregatik lehenbailehen zabaldu

nahi izan dute Kultur Batzordekoek erabakiaren berri, «egunean bertan gaizki ulerturik ez izateko».

### Izen-ematea etzi arte

Bitartean, parte hartu nahi dutenek oraindik ere badute izena emateko aukera, etzi arte, hain zuzen ere. Deialdia «herriarrei bakarrik egiten zaie», jaz bezala.

Alegian badira barazki, fruitu eta etxeko produktuak (ogiak, opilak, eztiak, mermeladak, sagardoa...) egiten dituztenak; hauek erakustera ematea merezi du eta herri batentzat oso aberasgarria da. Gauza polita izaten da herriarrentzat, eta herrian.

## Laburrak

### Magiarekin lotutako antzerkia izango da

**ALTZO** » Datorren larunbatean, Alitzoko Udalak antolatuta eta Kulturaren laguntzaz, Txalo antzerki taldearen *Magia teilatutetan* ikuskizuna izango da (Begoña Bilbao da zuzendaria). Lizarberko gelan izango da 17:00etatik aurrera. Teilatutetik Betisa azalduko da, kometa bat, eta bertatik magoak ikusiko ditu San Joan suez gain. Bera ere magiaren munduan murgilduko da...

**@ Bideoak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZaren webgunean 80 bideotik gora ikusi ditzakezu: azkenekoak, Irurako Kilmetroak jaialdikoak dira. Hauetan, kontzertuak, giroa, jendetza eta inaugurazioko hainbat momentu aurkituko dituzu. Modu berean, egunean bertan ateratako argazki bilduma bat ere badago. Jendeaz gain, bitxikeriak ere islatzen dituzte irudi hauek. Kontzertuak, lagun taldeak, beroa, atsedeneko momentuak... Sar zaitzete eta ea zeure burua ikusten duzun!

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

### Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuko dute

**IKAZTEGIETA** » Hilaren 19an Nafarroa Oinezera izango da Iruñean eta Ikaztegiatan, taldea osatzen bada, autobusa antolatuko dute. Izen emateak Udal bulegoetan egin behar dira, hilaren 15a baino lehen, «ez beranduago». 5 euro ordaindu behar da. Udalak garraioa finantzatzeko aukera ematen du, ez du ekingintza antolatuko, ezta arduradunik izendatu ere; beraz, garraioaren ordainketaz arduratuko da soilik.

## Iragarki laburrak

### LANA

» **Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzaria behar dugu. Informazio gehiagorako: 605 72 77 30.

### SALGAI

» **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.

## Altunaren agurra herritarrekin

**Erremontea** » Galarretan jokatu zuen bere azken partida Imanol Altunak; partida galdu zuen, baina «oso polita» atera zen.

### NEREA URBIZU

Imanol Altunak profesional mailako bere azken partida jokatu zuen asteburuan 20 denboraldi egin ondoren: «Frontoira ilusio handiarekin atera nintzen, sentsazio berezi batekin, baina jokoa ez zuen eraginik izan». Gainera, «oso partida polita atera zen, nahiz eta ez zen atera nahi bezala, ez bainuen irabazi».

Bertaratu zirenen, batez ere amezketarren maitasun keinuak asko eskertu zituen, frontoia, ikusleak eta jarraitzaileez gain. Hemendik aurrera Galarretara ikusle bezala joango da, eta «horrela ere gozatu egingo dut. Garikoitz anaia ikustera joango naiz, noski». Parti-



Altuna II.a (Garikoitz), Atarrabiako finalerdia jokatzen. GALARRETA

da 35-40 galdu zuen Urrutiarekin batera, Iñigo-Lizasoren kontra, baina oso itxura ona eman ez.

### Altuna II.a txapelketatik at

Bestalde, asteburuan ere Nafarroako Muebles-Polque torneoak jokatu zuen Altuna II.ak baina ez du aurrera egin, finalerdian 40-24 galdu ondoren. Altuna II.a eta

Etxaberen kontra Uterga eta San Miguel ari ziren eta hauek jokatuko dute finala. Adituen esanetan, «gehiago espero zen Altuna eta Etxaberegandik. Finalean Zeberio II-Badiola edo Urriza-Iriarteren kontra jokatuko beharko dute.

Partida hau datorren larunbatean jokatu dute 17:00etatik aurrera. Lekuberrin lehiatuko dira.



# Puntu bakarrarekin geratu da Laskorain Usabalen

**Tolosa** » Bizkaia Ancla Sestaotarraren aurka 4-4ko emaitzarekin amaitu zuten partida horitxoek.

## ERREDAKZIOA

Laskorain areto-futboleko jokalariek jokatu dituzten lehen neurketak zailak izan dira. Pasa den asteburuan etxean jokatu zuten, baina puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten. 4-4ko emaitzarekin amaitu zen Ancla Sestaotarraren aurkakako partida.

Usabalen «nabarmena izan zen horitxoan nagusitasuna jokoari dagokionean», baina area barruko jokaldietan isladatzen asmatu ez zenez nagusitasun hori alferriakoa bilakatu zen bigarrenengo astez eta markagailuaren gorabeherak beste lojika bat jarraitu zuen. Partida hasieran bizkaitarrek sartu zuten estreinako gola eraso batean; hala ere horitxoak ez ziren atzean geratu eta Saldiasen bi goli esker aurreratu egin ziren markagailuan. Tolosarrek aldearengotzeko aukera franko gozatuagatik ere,

(bi minutuz pertsona bat gutxiagorekin egon ziren aurkariak), 2 eta 1ekoarekin aldagaratu ziren atsedendaldira.

## Bigarren zatia

Bigarren zatian, berriz, bizkaitarrek berdinketa lortu zuten kanpoko jaurtiketa baten bitartez eta beranduxeago, Telleriaren zutoinkada baten jarraipenean eta karanbola bat aprobetxatuaz 2 eta 3-koa ere sarreratu zuten.

Kolpe gogorra izan zen baina horitxoek bikain erreakzionatu zuten eta berriro ere estu hartu zituzten sestaotarrak ondorengo minutuetan. Giligol bat baliogabetu zieten epaileek, abantaila legea existitzen dela ahaztuta edo, baina Lander Camiok hirusunak ipini zuten ondoren gol ikusgarri batekin eta Saldiasen ondoren 4 eta 3-koa egin zuten.

Orduan bizkaitarrek atezain jokariaren estratejiarekin launkoasartu zuten amaierarako 20 segundoren faltan eta Sanzen merituak geldituak sailhestuaz. Puntu banaketa azkenean. Zapore gaziogoa utzi zuten emaitzak horitxoaren artean.

Usabalgo palkoa presiditu zuen Jone Urteaga ikastolako zuzendariarekin batera, Javi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Sanz, Amatriain, Barriola, Saldias, Gilhaserako bostekoa-, Telletxea, Telleria, Camio, Murgi, Otxoa, Zabala eta Endika jokalariek izan ziren larunbatean Laskorainen ordezkari.

## Aurtengo jokari berria lana, «azpimarratzekoa»

Larunbateko norgehiagoka Saldiasen sartu zituen hiru golak aipagarriak dira. Dagoeneko lau daromatza bi partidetan; baina aipamen berezia merezi dute Camio eta Sanz aurtengo jokalaria berriak. Lehendabiziko honek «partida ederra borobildu zuen jokaldi bikainak burutuaz eta 2 eta 3koarekin bera izan zen erreakzioaren protagonista nagusi taldearen erantzunkizuna bere gain hartuaz».

Sanzek aldiz partida txukuna burutu zuela diote Laskorain taldeko arduradunek, «izan ere, hila-bete dezenteko geldialdiaren ondoren baleko maila ari da ematen oro har».



Olaederrako mahai-teniseko jokalariek. HITZA

# Olaederrakoek ez dute hasiera ona izan

**Mahai-tenisa** » Lehen Mailakoek galdu egin zuten Gasteizen; Bigarren Mailan ere porrota jaso zuten Usabalen.

## ERREDAKZIOA

Denboraldia hasiera zaila izan da Olaederra mahai tennis taldeko jokalarientzat. Euskadiko Lehen Mailan ari diren Mikel Martin, Raul Lopez eta Beñat Izaguirre jokalariek Gasteizen jokatu zuten. 4 eta 2ko emaitzarekin bueltatu ziren etxera. Datorren asteburuan, berriz, Krafft-Aletico Hernani taldearen aurka ariko dira Usabal kiroldegian.

Bigarren Maila Nazionalekoak etxean aritu ziren asteburuan. Lehia estua izan zen Irungo Leka-enearen aurka, baina azkenean kanpotarren aldera egin zuen balantzak. Hauek ere 2-4ko emaitzarekin amaitu zuten jardunaldia.

Datorren asteburuan, berriz, Nafarroa aldera bidaiatuko dute, Burlatako taldearen aurka jokatuko dutelarik. Aurten jaitsi da mailaz taldea eta, beraz, ez da erraza suertatuko Olaederrako jokalarientzat hauek gaitztea.

## Aurreikuspen onak

Ez dira ondo hasi baina aurreikuspen onak dituzte taldeko arduradunek. Mailari eustea dute helburu eta «lortuko dugu», iritzi diote.

# Shisha Pangmara igotzen saiatuko da Edurne Pasaban etxera bueltatu aurretik

**Tolosa** » Pasa den larunbatean lortu zuen mendizaleak bere 11. zortzimilakoa igotzea: Manaslu (8.167 m.).

## ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean 11. zortzimilakoa lortu zuen Edurne Pasabane, Manaslu mendiko tontorrera heldu baitzen (8.167 metro), Asier Izagirre tolosararekin batera. Dagoeneko 11 zortzimilako ezagutzen ditu mendizaleak eta hiru

besteri ez zaio falta 14ak osatzeko: Shisha Pangma, Kangchenjunga eta Annapurna.

Hain zuzen ere, Manaslutik jaitsi eta kanpalekuan Euskal Herriko eta Espainiako hainbat komunikabiderekin hizketan ari zela eman zuen albisteak: «Tibetera joateko baimeana eskatu dut —bertan dago Shisha Pangma zortzimilako mendatea—. Ez da erraza baimeana lortzea, baina asteazkenetik aurrera joateko baimeana eman didate. Aste honetan erabakiko dugu Shisha Pangmara joango garen edo ez». Zortzimilako bat igo, eta

hurrengoa buruan. «Egia esan, 14 zortzimilakoak igotzeko erronka amaitzeko gogoia daukatzu».

Lehia itsuan hasteko gogorik ez badauka ere, hiru emakumezko igo dituzte 11 zortzimilako: Pasabane berak, Gerlinde Kaltenbrunner austriarrak eta Nives Meroni italiarrak. Hain zuzen ere, Meroni ere pasa den larunbatean igo zuen Manaslu, bere gizonarekin batera.

## «Zoragarria izan da»

«Zoragarria izan da igoera. Zorte handia izan dugu. Merezki izan du

bi astez oinarritzko kanpalekuan zain egotea». Nepalen igande goizeko bederatzia inguru zirenean igo ziren Manasluko gailurrera Pasaban bera eta espedizioko gainerako zazpi mendizaleak. Baina, amaiera ederra izanagatik, ez da erraz-erraza izan igoera. Izan ere, eguraldi txarrak eragin, bi aste pasatu behar izan dituzte oinarritzko kanpalekuan, gora egin ezinik, egonean. Azken egunotako giro atsegina baliatuta, ordea, pentsatu bezala egin zuten igoera eta jaitsiera guztia. Pentsatu bezala, eta uste baino zorte handiagorekin.

## » 14 ZORTZIMILAKOAK

### Igotakoak

- Makalu (8.035 m.). 2002.
- Cho Oyu (8.201 m.). 2002.
- Lhotse (8.516 m.). 2003.
- Gasherbrum II (8.035 m.). 2003.
- Gasherbrum I (8.163 m.). 2003.
- K2 (8.611 m.). 2004.
- Nanga Parbat (8.125 m.). 2005.
- Broad Peak (8.047 m.). 2007.
- Dhaulagiri (8.167 m.). 2008.
- Manaslu (8.156 m.). 2008.

### Igotzeko dituenak

- Shisha Pangma (8.046 m.).
- Kangchenjunga (8.563 m.).
- Annapurna (8.091 m.).

## Hilberriak

### MARIA AIZPURUA ETXEBERRIA

(Patxi Aizkorretaren alarguna)

Zure indar eta maitasunari esker ez da zuk piztutako surik itzaliko Txirrita baserriko sukaldean



ERRENERIA-ORERETAN, TXIRRITA BASERRIA 2008ko urriaren 9a

Zure bilobak: Lourdes, Idoia, Garbiñe, Jaione, Elixabet, Anetz, Imanol, Garikoitz, Maitane eta Peio

### BERNARDO AIZPITARTE ARRUTI 'KABRA'

Borrokatzu jaio, borrokatzu bizi, borrokatzu hil.

Zure borroka guretzat erueda da. Agur eta ohore.



AZPETIA 2008ko urriaren 8a

Zure anaia



### 'KABRA'

Harritik harrira hesitik hesira, ahuntzaren gisan saltaka sartu hitzen gure bihotzean...

Jarraituko diagu beste batean

Zure lagunek



AZPETIA 2008ko urriaren 8a



Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari talde ibartarrek Bardeetara antolatuta zuten bizikleta irteera iragan urtean. A.I.

## Bigarren ikurrina eskuetan eta bizikletak hankartean igandean Ibarrik Urbasara

**Ibarra** » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak bizikleta irteera antolatute igande honetarako.

### ASIER IMAZ

Ibarriko Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak, urriaren 12an, igandean, bizikleta irteera antolatute.

Ibarriko plazatik 08:30ean irteerako autoetan, bizikletak kamioi txiki batean eramango dituzte Nafarroako Urbasa bailarara. Bertan, bizikleta gainean jarri eta egun pasa egiteko asmoa azaldu dute «kobazuloak, Urederrako ur-jauziak eta paisaia ederrak ikusiz». Egundua «giro ederrean» igarotzeko nahi dutenek, igandean, bizikleta eskuetan Ibarriko plazara agertzea besterik ez dutela aipatu dute antolatzaileek.

### Bigarren ikurrina eskuetan

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeko kideak bigarren ikurrina eskuetan dutela irteerako dirira Ibarrik. Izan ere, igandean honetako irteera *Euskal Herriaren zehar, geurea ikurrina!* ekimenaren barnean kokaturik aurkitzen da. Honen arabera, Euskal Herriaren zehar zazpi irteera antolatuko dituzte bi taldeek elkarlanean. Lurralde bakoitzean ikurri bat utziko dute, «mendi tonforren batean edota leku esanguratsuenetan».

Lehen mendi irteera Gipuzkoan burutu zuten, Zarautzik Debarako bidea eginaz. Lehen ikurrina Zumai inguruko tonfor batean kokatu zuten ibartarrek.

### Urbasaz bizikleta eta linternaz

Ibarrik Urbasarako bidea autoz egiteko irteerara agertzen diren antolatzaileen esanetan, bizikletak kamioi txiki batean era-

mango dituzte Urbasako kanpaineraino. Ibilbideari dagokionez, «guztiz laua» izango omen da: «egingo dugun bidea ez da zaila izango, oso kilometro gutxi baititu. Egia esan iazko esperientziatik zertxobait ikasi dugu eta ez gara Bardeetan bezala ibiliko. Zailtasun gabeko egun pasa egingo dugula esan genezake. Guztira 15 kilometro egiteko ditugu eta desnibela 280 metrokoa izango da igorak eta jaitsierak kontutan hartuta. Beraz, bizikletan oso oso gutxi ibiltzen diren ere egiteko moduko ibilbidea izango da».

Bidean ikusiko dituzten paisaien artean, barnean laku bat duen kobazuloa aipatu dute antolatzaileek. «Kobazulo txiki batean sartzeko asmoa dugu; barruan laku eder bat dauka eta ikusteko izugarri polita da. Hori bai, linternak egongo diren arren, bakoitzak berea eramaten baldin badu asko hobe».



Haurrek ederki pasatzeko aukera izan zuten Aurrera Egunean. NEREA URBIZU

## Urtetik urtera aurrera doan eguna da Aurrera Eguna

**Leitza** » Antolatzaileak «oso gustura» agertu dira larunbatean ospatu zuten II. Aurrera Egunean izandako erantzunarekin.

### A. IMAZ

II. Aurrera Eguna iragan larunbatean ospatu zuten Leitza. Egundua guztian zehar hamaika ekitaldi antolatuta zizuten Aurrera osatzen duten talde ezberdinetako kideak. Hala nola, dantzariak, futbol jokariak, pilotariak, eta batez ere bazkideak, egunaz gozatzeko asmoz jaiaren parte bilakatu ziren.

Antolatzaileak balantzea egiteko uanean «oso gustura» agertu dira, «egun oso ona» izan zela aipatu.

### Aurrera Eguna: belaunaldi ezberdinen topagunea

Aurrera Elkarteko kideen esanetan, «larunbateko ekitaldietan argi islatu zen zer den Aurrera Elkarrekin. Leitza kaleetan belaunaldi ezberdinetako bazkide eta herritarrek elkarrekin jaiarekin bat egiteko. Hau benetan azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu. Izan ere, haurrek, gazteek, helduek eta adinekin bat egin zuten».

Partaide kopuruaren inguruan ere «oso gustura» agertu dira Aurrera Elkarteko kideak: «Laz ospatu genuen lehen aldiz Aurrera Eguna eta oso gustura gelditu ginen. Eta aurtan zer esan, jende gehiago ibili baita kaleetan. Bazkarian adibidez iaz 100 geunden. Larunbatean berriz 150».

## Denboraldiko azken proban Nieve hirugarren

**Leitza** » Kontinental mailako Orbea Oreka SDA taldeko txirindularia podium-era igo da Cinturo l'Emporda proban.

### A. IMAZ

Mikel Nieve leitzarrak hirugarren amaitu zuen Cinturo l'Emporda bizikleta proban iragan igandean. Hiru etapa korritu dituzte kontinental mailako txirindularien tropelak, eta 460 kilometro bizikleta gainean ibili ondoren, Nieve podium-era igo zen.

### Denboraldiko azken proba

Herrialde Katalanetan barna lehiatu zen proba, Kontinental mailako azkena izan zen. Mikel Nieve leitzarraren talde zuzenda-

riak, Alvaro Gonzalez de Galdeanok, «proba oso gogorra» izan zela aipatu zuen.

Leitzarrak eginiko lanarekin ere «gustura» agertu zen: «Orbea Oreka SDAk, gure taldeak, lan ona egin du eta Nieveren hirugarren postuarekin gustura gaude. Horretaz gain, lehen etapa laugarren amaitu zuen Nievek eta taldearekin batera oso lan ona egin duela aipatu behar da».

### Euskaltel-Euskadi zain

Leitzarrak Orbea Oreka SDA taldearekin korritu duen azken aldian izan da iragan asteburuko proba. Mikel Nieve denboraldi berria Euskaltel-Euskadi taldean hasiko du eta Cinturo l'Empordako proban eginiko lanak eronka berriari aurre egiteko indarrak eman beharko lizkioke.

## Laburrik

### Etzi Aurrera-Saiazeko pilotarien partidak

**PILOTA** • Aurrera-Saiazeko pilotariak partidak jokatu dituzte etzi Ibarri eta Tolosan. Kadeteek 19:15etik aurrera jokatu dute Ibarri. Seniorrek 19:30ean jokatu dute Tolosako Beotibarren.

### Osasunari buruzko hitzaldia gaur 17:00etan

**GAZTELU** • Uli Mankomunitateak antolatute eta Kutxak sustatutako osasunari buruzko jardunaldia egongo da gaur 17:00etan Eskola zaharrean. *Pentsa dezagun oinek*in gaia landuko da bertan.

### Leaburun eta Gaztelun Idoia Sanchez bihar

**AISIALDIA** • Idoia Sanchez ipuin kontalaria Leaburun eta Gaztelun egongo da bihar. 17:00etan Leaburuko liburutegian saioa eskaini ondoren Gazteluko eskolara joango da 18:30ean.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkartek, bere 50. urteurrenean mikologia erakusketa antolatuta larunbat goizean Plaza Zaharrea. Bezeran perretxikuak bildu eta Parroki etxera eraman daitezke 15:00etatik aurrera, bereiztu eta sailkatzeko.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Iturri jubilatutako elkartek (Euskal Herria plazakoa) Iratxera irteera antolatuta du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelean, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izen-ematea, elkartean egin daiteko 34 eurotan (36 euro ez bazkideek).

■ **Tolosa.** Santa Mariako Atsedena Taldeak irteera antolatuta du urriaren 18an Donostiako Santa Klara uhartera, 12-16 urtekoentzat. Izen-ematea, [atsedena@hotmail.com](mailto:atsedena@hotmail.com) edo 680277411 zenbakian.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek Gares eta Logroñora irteera antolatuta du 18rako. Bazkaria Meson Rios-en. Izen-ematea, elkartean 23 eurotan (26 eurotan ez bazkideek).

### Erakusketak

■ **Alegia.** Encarna Megia alegiarren margolanak ikusgai urri osoan zehar, asteartetik igandera bitarte, Alegiako jubilatuen tabernan. Paisaiak lantzen dituzten gehienbat artistak; salgai ere badaude bere lanak.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leitza.** Plazan, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Herria normaltasunaren bidean

**IRURA** • Heldu bezala joan zen unea. Kilometroen jaialdiak inoiz baino jende gehiago bildu zituen Iruran pasa den igandean. Baina, orain, pixkanaka herria normaltasunera bueltatzen ari da. Herenegun aritu ziren garbitze lanetan eta jaialdiaren azken zantzuak ezabatzen ari dira. Herriarentzat hain garrantzitsua izan denarekin «oso gustura» azaldu ziren antolatzaileak.

leak egunean bertan eginiko balantzean, baita herritarrak eurak ere. Luze joko du urtebete honetan egin dituztenak ahaztea, guztion oroimenean geratuko baita, baina normaltasunera bueltatu beharra dago. Atzo ikasleek ikastola berri eman zituzten eskolak, kanpoan oraindik eszenotika bazegoen ere. N.URRIBIZU

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Mireia Arrospide (Lizartza, 10 urte).**

Maite zaitugu, maite, maite, maite. Pila, pila, patata tortilla. Familiaren partetik.



### Urte askoan

**Libe Barriola Goikoetxea (Tolosa).**

Gaur 10 urte. Asko maite zaitugu, gurasoak, Nestor eta Danel.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

digitala  
**h**  
@

Datorren urriaren 10ean, ostirala, 12:00etan  
**GARBINE BIURRUN**  
epaile tolosarrarekin elkarrizketa digitala

HITZAren erredakzioan izango duzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.

